

Ignacio Zuloaga eta Eibarko Arteen eta Industrien Erakusketak

Egilea: Mikel Lertxundi Galiana
Itzulpena: Udal Itzulpen Zerbitzua

1870ean jaioa, Zuloagak beti izan zuen lotura estua bere jaioterriarekin, haurtzaroan eta lehen gaztaroan herrian aldizka bizi izan bazen ere: 1873 eta 1876 artean, azken gerra karlistaren ondorioz, Donibane Lohizunen bizi izan zen; 1881 eta 1884 artean Parisen ikasi zuen, hango ikastetxe bitan; 1884 eta 1886 interno egon zen Bergarako Merkataritza Eskolan; 1886 eta 1887 artean pintura ikasketei ekin zien Madrilan eta 1888tik aurrera Erroman jarraitu zuen, eta, berriro, Parisera bueltatu zen. Beraz, bere bizitzaren lehen hogeitun urte horietatik ez ziren asko izan Eibarren igaro zituenaldiak; hala ere, horrek ez zion gutxitu herrikide izatearen sentimendua.

Hartu-eman horri eusteko moduetako bat, familiaren etxera behin eta berriz egindako bisitez gain (gutxienez, etxea beste esku batzuetan geratu zen arte), herrian aldizka antolatu ziren Arteen eta Industrien Erakusketak izan ziren. Herriko manufaktura-produktuak sustatzeko sortu baziren ere (bereziki, armagintza, burdingintza eta metalgintza), edizioetako batzuek arte plastikoei ere ateak zabaldu zizkieten, batzuetan presentzia gehiagorekin, beste batzuetan gutxiagorekin. Aurrenekoa 1865. urtekoa izan zen, Isasi jauregiko egonaldi batean Isabel II.a erreginari eskaini zitzaion jaialdietako bat bezala antolatua. Handik hamarkada bira, hain zuzen ere, laurogeikoan, Euskal Herriko beste hainbat herritan ikusi ahal izan ziren ikuspegi industrialak eta artistikoa nahasten zituzten erakusketak. Eibarrek 1887ko udan izan zuen bere erakusketa; Zuloagak parte hartu zuen lehena izan zen hura. Herriak zuen industria-gaitasunaren erakusgaien erdian, bisitariak garai hartan margolari izan nahi zuenaren margolan eta marrazki batzuk ikusi ahal izan zituzten, eta horien artean, bere lehen lan ezagunetako bat, honako izenburu hau zuena: *Arrateko itsua*.

Handik ia hogeitun urtera, 1908an egin zen hurrengo Erakusketan hartu zuen berriro parte, baina orduan ez zen bere prestakuntzan eta publikoarekiko harremanean gazte hasi berri eskarmentugabea, baizik eta artista sendotua, hamarkada bat zeramana nazioartean arrakasta handia izaten. Ordurako, bere lanak Europako herrialde askotan erakutsita zeuzkan eta kontinente zaharreko museo eta bildumagile handienek eskatzen zituzten, baina, hala ere, ez zion hutsik egin nahi izan aurrekoak zertxobait hobetu zituen 1908ko hitzorduari. Urte horretan herrian ospatu ziren Euskal Jaien testuinguruan hezuramitua, armagintza, grabatugintza, damaskinatugintza, soziologia, makineria eta erremintak atalen inguruan oinarritu zen erakusketa, Arte Ederrei leku txiki bat eginda. Herriko beste margolari biren lan sorta batekin batera —Hilario Unceta eta Jacinto Olabe margolari bikaina—, Zuloagak bere lan garrantzitsuenetako bat erakutsi zuen: aurreko urtean Segovian margotutako *El enano Gregorio el Botero* (1907), Parisko Société Nationale des Beaux Arts-eko Aretoan egindako aurkezpenean benetako zirrara sortu zuena. Eibarren, Alfredo Laffitte-ren esanetan, "obra iradokitzaile" bilakatu zen.

Hurrengo erakusketarako epeak moztu egin ziren, eta 1914an beste Erakusketa berri bat iritsi zen, esportazioen beherakadaren ondorioz armagintza pairatzen ari zen krisia arintzen saiatu zena eta, aldi berean, Armeria Eskolaren eraikina inauguratzeko balio izan zuena. Zuloaga, ordurako izen eta ospe handiko margolaria, erakusketaren ohorezko presidente izendatu zuten eta hura antolatzeke egin ziren gestio askoren inguruan egin zioten galde. Sustatzaileek margolariaren inplikazio handiagoa nahi zuten eta kartel iragarlearen bozetoa egiteko enkargua egin bazioten ere, azkenean, Olavek egin zuen modu ezin dotoreagoan.

Prozesu osoan zehar ikusten da Zuloagaren eskua, izan ere, prestalan guztiak gertutik jarraitu eta lehiaketa hori aurrekoetatik eta ondorengoetatik bereiziko zuen irizpidea proposatu baitzuen. Hari zor zaio industria-atala probintzia mailakoa izatearen eta artearena lurralde osokoa izatearen ideia. Gipuzkoako artistei dei egiteaz gain, Bilboko Euskal Artisten Elkarteak Eibarko hitzorduari garrantzi handiagoa emateko ahaleginak batzea lortu zuen. Zuloagak bere idazkari zen Antonio de Guezala margolariarekin zituen hartu-emanen ondorioz, erakusketa bat egin zen, mendearen hasierako erakusketa kolektiboen artean leku nabarmena izan zuena. Erakusketa-lekuan obrak jartzeko lanak zuzentzen ibili zen, bere lagun Pablo Uranga margolariarekin eta, seguruenik, Olaverekin batera. Erakusketak 40 artista bildu zituen, baina lilurarik handiena sortu zutenak Zuloagarenak berarenak izan ziren: *La victima de la fiesta* (1910), *Buffalo, cantor de Montmartre* (1913) eta *Retrato de Adela Quintana* (1910). Parisen areto batera joaten zen bakoitzean gertatzen zen bezala, bisitariak bere margolanen aurrean pilatzen ziren ("erabat bereganatzen du jendearen arreta" zioten orduko egunkariek).

Emaitza arrakastatsua izan arren, hurrengo Erakusketa egin arte hamahiru urte igaro ziren. 1927ko edizioa, gainera, hile bitan antolatu zen, eta, horren ondorioz, artearen atala 1914koa baino askoz apalagoa izan zen, Eibarko hiru sortzaile hauetara mugatuta: Zuloaga, Olave eta Carlos Elguezua. Inaugurazioa baino egun batzuk lehenago, Zuloagak Zumaiako etxean zituen obra hauek bidali zituen: *Don Plácido Zuloaga en su taller* (1895), *Retrato de la artista rusa Malinowska* (1912) y *Torerillos en Turégano* (1913). Horietako bat bera ere ez zen bere ekoizpen berrienaren adibide.

Hura izan zen Zuloagak bere lanak Eibarren erakutsi zituen azken aldia, 1929 eta 1932ko erakusketek ez baitzuten beharrezkotzat jo arteari eskainitako atal bat egitea eta produktu prosaikoagoen alde eginda bazterrean geratu zen, herriak zuen gaitasun industrialak erakutsi nahian. Bigarrena, Gerra Zibilaren aurreko azkena izan zen, eta, 1865eko lehena bezala, pertsonalitate baten bisita aprobetxatzeko prestatu zen, azken erakusketa hartan, Niceto Alcalá Zamora Errepublikako presidentearena. Inaugurazio egunean, Zuloaga zegoen politikaria hartu eta instalazioak ikusten lagundu ziotenen artean.

Lau kolaborazio horiei esker, eibartarrek bere herrikidearen ibilbidearen jarraipena egin ahal izan zuten, hasieratik helduarora, eta bertatik bertara ezagutu ahal izan zituzten nazioartean Zuloagari ospea eman zioten lan batzuk.